



## ATAUNGO UDALA

### AZKEN ASTEOTAKO TXIKIZIOAK DIRELA ETA

Gertakari larriak izaten ari gara azken boladan Ataunen. Aurreko astean bertan, ostegun gaueko 11etan, harriak bota eta aurreko kristala hautsi zioten errepidean zihoan auto bati, San Gregorioko portu gainean. Era berean, sua egin zuten bi aldiz San Gregorioko komunetan, pilotalekua konpontzeko jarrita dagoen aldamiotik teilatura igo eta teilak bota zituzten goitik behera, etxe partikular baten terrazara sartu ziren, mediku-kontsultaren sarreran dagoen su-itxalgailua hustu zuten hantxe bertan, eta San Martingo lurpeko aparkalekuan beste su-itxalgailu bat agertu zen hustuta, hiru hilabetean hirugarrena, eta su-itxalgailuaren armairuko kristala puskatuta.

Urtea hasi denetik beste hainbat txikizio izan dira: Auzoeta kiroldegiko ateetako bat hautsita azaldu da, hainbat zakarrontzi desagertu dira, bi aldiz utzi dute Atsedan Toki hankaz gora (zaborra, kartak eta tantoak harrika botata, edateko txokolatea paretaren kontra botata, kafe-makina hondatuta...), Arratetako bidean dauden ispiluak puskatu dituzte, San Martingo plazako piboteak errekarra bota, herritar baten etxea harrikatu, San Martingo eta San Gregorioko komun publikoak hautsi...

Onartezinak dira Ataungo herriaren eta herritar guztion aurkako eraso zentzugabe hauek. Kalte ekonomiko handiak eragiteaz gain (6.000 euro inguru gastatu ditugu dagoeneko kalteak konpontzen), bizikidetza eta herriko giro lasaia erabat gaiztotzen dute, eta herritarrak arriskuan jartzen dituzte. Neurriak hartu eta zaintza-lana zorrotzu dugun arren, ezinezkoa da herri osoa eguneko 24 orduetan kontrolpean izatea.

Idatzi honen bidez, Ataungo Udalak irmo salatu nahi ditu gertakariak eta kaltetu zuzenei babesa adierazi. Horrekin batera, herritar guztioi eskatu nahi dizuegu nork bere etxean edo dagokion eremuan ahalegina egiteko, dagoeneko larria den egoera okertu ez dadin. Haserrea, ezinegona eta errebeldia adierazteko ezin zaio aurrean harrapatutako edozeri eta edozeini eraso egin.

Ataungo Udalean balio hezitzaileak lantzen jarraituko dugu, herritar guztion ongizatea hobetzeko.

Ataunen, 2022ko apirilaren 26an.

